

Artista langileak



Eneko Olasagasti
GIDOILARIA ETA
ZUZENDARIA
@EnekoOlasagasti

Madrilgo Aktoreen Batasuneko idazkari nagusi Iñaki Guevararen hitz dira honako hauek: “Aktoreak noizbehinkako langileak gara eta, horregatik, legeak egokitu beharrean gauden gainontzeko langileen eskubide berak lortzeko”.

Bere hitzek azken urteetan eman den ekimen baten mamia laburbiltzen dute. “Artistaren Estatutua” bezala ezagutzen da eta horixe du helburu: langileen eskubide berak izatea, artistak ere langileak garelako.

Hedabideek saltzen duten aktoreen irudia gehienetan alfonbra gorriarekin lotuta dago, edo antzeko ekintzek zabaltzen duten glamourarekin. Inportatutako irudia inondik inora. Eta gurean, *Handia* fenomenoak Goyatarako izendapenekin (Zorionak, duda gabe) areagotu egiten du irudi hori. Baina errealtateak ez du zerikusirik horrekin, ez eta Gizarte Segurantzarekin dugun harremanarekin ere. Guretzako propio sortu zuten Erregimen Orokorren barruan artisten erregimenaren berezitasuna aitortzen zaigu, baina horrek ez dizkigu eskubide berak bermatzen. Eta kontua, hain zuzen ere, hori da. Langile guztien eskubide berberetara hurbilduko gaituen lege al daketa bat bultzatzea. Hiru puntutan laburbiltzen da Artistaren Estatutuak eskatzen duena.

1. Gizarte Segurantzaren erreforma. Bermatu dezan lanik gabeko uneetan egon dadila langabezia prestazioa, behin-behinekotasun edo inter-

mitentzia errealtatera egokitua, artistek bere bizitza laborala osa ahal izan dezaten.

2. Erreforma fiskala. Urte batean irabazitakoa errenta aitorten diferentetan banatu ahal izatea, aintzat hartzeko artista baten soldatak, bere lana bezala, aldakorrek eta intermitenteak direla.

3. Eredu sindikalaren erreforma. Artistek, gainontzeko langileek bezala, hauteskunde sindikalak egin ahal izan ditzaten, eta sindikatuek arloko erakunde sindikal nagusiak bezala onartuak izateko aukera edukitzea.

Hau guztia aurrera ateratzeko joan den urteko udaberrian Madrilgo Diputatuen Kongresuan, eta Podemosek bultzatuta, azpibatzerde bat osatu zen. Sare sozialetan, batzerde horren bilera bateko bideo bat ikusi ahal izan da, non Espainiako lau alderdi nagusiak bat datozen ekimenarekin. Beste kontu bat da horrek zein ibilbide izango duen, nahiz eta denak bat etorri oinarrietan. Bideoan ez dira azaltzen ez EAJ, ezta EH Bildu ere. Kontuan izanik Gizarte Segurantzaren eskumena Madrilgo esku dagoela oraindik, ez legoke gaizki Euskal Herriko artistok bi alderdi horien bitartez ordezkatuak izatea batzerdean. Agian hala da, bideoan azaltzen ez badira ere.

Berez 2018ko udaberrian iritsiko da Kongresura eztabaidatua izateko. Sinplea beraz, artistak langileak gara eta eskubide berak nahi ditugu. Ea. ■

Beti bezperako koplak



Miren Artetxe Sarasola
BERTSOLARIA
@mirenartetx

Klank. Klank. Klank...: “Edertasunez jaunak apaindu zuen Ageda gaztetan. Haren begiak izar bi ziran, aurpegi gozo haretan. Gizon gaiztoen grina zitalak esna zitzaken benetan. Lais-ter izutu zuen Kintziano Agedaren ederretan”.

Siziliako gobernadore saiatu omen zen Agedaren edertasuna bereganatzen –demagun, ezkontzeko eskatuz–. Neska gazteak, ordea, “Kintzianoren eske guztiak errez baztertu zituan” –demagun, bere birjintasuna Jesus Nazaretakoari eskaini nahi ziolako. Baina –kristau-ehiza garai bete-betean– “agintari gaizto harek kristautzat salatu zuan”.

Tradiziozko istoriotik ikasbide bat hautatze-kotan, nik hauxe. Kintziano Agedaren ezetzak

amorrarazi zuen, eta haren kristautasuna erabili zuen, herraren herraz, bere boterea ezezkorekin desafiatu zuen hura makurrarazteko. (“Interpretazio partziala!”, entzun dezaket. “Anakronismoa!”). Eta Agedaren gogaitu aurpegia agertzen zait GIF erara, begiak zuri, hasperenka eta bularretik odol-zurrusta dariola.)

Alabaina, gauzak zer diren, zigor gisara putetxe batera eraman zuen Kintzianok Ageda, duintasuna gal zezan, birjintasunarekin batera. Izan zedila puta. Ezezkoaren aurretik ez bazen, ezezkoaren ondoren. Baina, puta. Eta mirariz, bertan ere ez zuenez birjintasunik galdu, Ageda giltzaperatu eta hil arte torturatzeko agindu zuen gizonak.

Klank. ■